# MEMORIAREN EGUNA
# GAZTEON 12 ISTORIO

Adi egunero 18.00etan EGK-ko sare sozialei!

# DÍA DE LA MEMORIA
# 12 HISTORIAS JÓVENES

¡Mira las redes sociales de EGK cada día a las 18.00!

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

Zergatik ahazten dugu?
Guztioi gustatuko litzaiguke oroituak izatea.
Gure memoria bizirik jarraitzea nahi al duzu?
ADI EGUNERO 18.00etan EGK-ko SARE SOZIALEI!

¿Por qué olvidamos?
A todas y todos nos gustaría ser recordadas/os.
¿Quieres que nuestra memoria siga viva?
¡MIRA LAS REDES SOCIALES DE EGK
CADA DÍA A LAS 18.00!

*EGK-ko Bake lan taldea sortutako ekimena duzu hau. Azaroaren 10an Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak ere, gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por EGK. Queremos que el 10 de noviembre, el Día de la Memoria, pertenezca a las personas jóvenes. Porque nuestra memoria también completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/1

Parranda eguna dute etxeko gazteek. Afal ordurako ama bakarrik gelditu da etxean, aita lanean dagoelako. Gaueko ordu txikiak dira dagoeneko eta amak alabari telefonoz deitu dio. “Zer ote du amak ordu hauetan?”. “Bihotza, ETAk aita hil egin du.” Alaba orduan, anaia bilatu eta biak negarrari eutsi ezinik ospitalera doaz. Ama bertan dago, eta ez berak ezta seme-alabek ere, ez dute ulertzen zer gertatu den eta batez ere, zergatik gertatu den. Ospitaleko momentuak eta hurrengo egunak ez dituzte oso argi gogoratzen, minak itsututako momentuak agian. Familiak lortu du hilketaren arrazoia zein den jakitea, aita Guardia Zibila zen. Baina orduan, horrek zer esan nahi du? Okina izango balitz bizirik egongo litzatekeela? Gainera zetorkien gorrotoari uko eginik, barkamenaren bidea aukeratu dute, eta orain urte batzuk, hiltzailea aurrez aurre hartu eta bere burua ulertzen saiatu dira. Barkatzea gehiegi esatea da, baina gutxienez gorrototik eraikita egongo ez den bizitzekin jarraituko dute aurrera. Aitak horrela nahiko luke.

Los jóvenes de la casa están de juerga. Para la hora de la cena, la madre se queda sola en casa porque el padre está trabajando. Entrada la madrugada, la madre llama por teléfono a su hija. “¿Qué querrá la ama ahora?”. “Cariño, ETA ha matado al aita”. Ella busca entonces a su hermano y los dos, sin poder contener las lágrimas, se dirigen al hospital. La madre ya está allí, y ni ella ni sus hijos entienden lo que ha pasado y, sobre todo, por qué ha pasado. Los momentos del hospital y los días siguientes no los recuerdan con claridad, probablemente el dolor ha cegado sus recuerdos. La familia ha averiguado cuál fue la razón del asesinato: el aita era guardia civil. Pero entonces, ¿eso qué quiere decir: que si hubiese sido panadero seguiría vivo? Para deshacerse del dolor que les persigue, han decidido elegir el camino de la paz, y ya hace unos años se citaron con el responsable de su muerte y han intentado entenderlo. Decir que le han perdonado es decir demasiado, pero al menos, tratarán de seguir con unas vidas no construidas desde el odio. El aita así lo habría querido.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/2

Unibertsitatetik bueltan nintzen, amak bazkaltzeko prestatu zuenarekin asetzeko irrikitan. Telefono dei bat nuen, zenbaki arraro horietakoa, inork erantzuten ez dituen dei horietakoak, “baina tira, gaur hartu egingo dut, ez du zertan ezer txarra izan”.

-Bai esan?

-Kaixo, anaia! Parisetik deitzen dizut. Kartzelan naiz, dei bakar bat egin dezaket, eta zuri deitzea erabaki dut. Bisitan etor zaitezkete, jarri kontaktuan kartzelako administrazioarekin. Baina ulertzen dut, momentuz gauzak pentsatu behar dituzuela. Zer moduz zaudete?

-Ezustean harrapatu nauzu. Eraman zintuztenetik ez dugu ezer jakin zutaz, eta gauza asko pasa zaizkigu burutik, egia esatea nahi baduzu. Izango duzu gure berri. Muxu bat anai, ondo izan.

Lehorra izan nintzela? Ados. Baina ez nekien zer esan, ez nekien zer egin. Hilabete eskas pasa zen anaia etxera bila etorri zirenetik eta dei hura jaso nuen arte. Anaia nahiko bihurria zela denok genekien, baina ez hainbesterako. Etxean abertzaleak bai, independentistak bai, baina inola ere ez borroka armatuaren aldekoak. Hamabost urte pasa dira eta nik familia eduki dut dagoeneko. Bihar nire seme-alabei esaten diedan moduan, txangoa dugu. Parisera goaz, osaba bisitatzera. “Odolak ideiek baino gehiago lotzen gaitu”, errepikatzen diot bidaia bakoitzean nire buruari, baina anaia han ikusten dudan bakoitzean, lana izaten dut sentitzen dudan amorrua barruan mantentzeko.

Volvía de la universidad, deseando lo que la ama habría preparado para comer. Recibí una llamada de teléfono, una llamada de uno de esos números raros, esos números a los que nadie suele contestar, “pero bueno, hoy voy a cogerlo, no tiene por qué ser algo malo”.

-¿Diga?

-¡Hola, hermano! Te llamo desde París. Estoy en la cárcel, me dejan hacer una sola llamada y he decidido llamarte a ti. Podéis venir de visita, poneos en contacto con la administración. Aunque entiendo que por el momento tendréis que pensároslo. ¿Cómo estáis?

-Me has pillado desprevenido. No hemos sabido nada de ti desde que te llevaron y, si quieres que te diga la verdad, nos han pasado muchas cosas por la cabeza. Ya tendrás noticias nuestras. Un beso hermano, cuídate.

¿Que fui seco? De acuerdo. Pero no sabía qué decir, no sabía qué hacer. Había pasado apenas un mes desde que vinieron a por mi hermano y recibí esa llamada. Sabíamos que mi hermano era algo rebelde, pero no hasta ese extremo. En mi casa somos abertzales, independentistas, pero jamás a favor de la lucha armada. Han pasado 15 años y yo he formado una familia. Mañana, como suelo decirles a mis hijos, tenemos excursión. Nos vamos a París a visitar al osaba. “La sangre nos une más que las ideas”, repito siempre en mi cabeza en cada viaje, pero cada vez que veo allí a mi hermano, me cuesta horrores contener la rabia.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/3

Gurasoek janari denda txiki bat daukate eta anaia eta biok bertan aritzen gara laguntzen. Egunero zeregin dezente izaten ditugu bertan eta salmentak ongi joateko gogoz jarduten dugu. Anaia, maiz joaten da Iparraldera, bertakoa baitu bere neskalaguna, udaberrian kontzertu batean ezagutu zirenetik. Nik behin baino gehiagotan eraman izan ohi dut bertara aitaren auto zaharrarekin, berak ez baitu gida-baimena atera nahi. Gure etxean politikaz mintzatzea beti egon da debekatua. Aitona erbesteratua izan zen gudarostean eta ordutik gai hauek isilaraziak daude gurean. Kalean mugimendu handia sumatzen da eta kontuz ibiltzeko azpimarratzen digu beti amak. Egunkaria irekitzea nahikoa da berunezko urteetan gaudela jabetzeko. Pentsaezina zen niretzat, anaiaren bila joandako bidaia batean bizia kenduko zidatela, ETAkide batekin nahastuta.

Mis padres tienen una pequeña tienda y tanto mi hermano como yo solemos ayudarles a sacarla adelante. A diario tenemos muchas cosas que hacer y trabajamos con ganas para que las ventas vayan bien. Mi hermano va a menudo a Iparralde. Su novia vive allí: una chica que la pasada primavera conoció en un concierto. Como él no quiere sacarse el carnet de conducir suelo llevarle muchas veces en el coche viejo de nuestro padre. En nuestra casa siempre ha estado prohibido hablar de política. El abuelo estuvo exiliado en la posguerra y desde entonces el silencio inunda nuestra familia. Pero en la calle hay mucho revuelo y nuestra madre nos recuerda siempre que andemos con cuidado. Es suficiente abrir el periódico para darnos cuenta de que estamos en los años de plomo. Y no lo hubiera pensado jamás, pero en un viaje que fui a buscar a mi hermano, me arrebataron la vida confundiéndome con un militante de ETA.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/4

Asteazkena, eskola eguna. Amak 13 urteko alabari zortea izan dezala esan dio. Kurtsoko lehenengo azterketa. Eskolara iritsi, lagunekin elkartu. Azterketa ordua iritsi da, urduritasunak ito egingo du neska, baina bere azken oroimena “atzo aitarekin ikasten egon nintzen, ez dago gaizki egiteko aitzakiarik”. Arratsaldeko bostak, etxera buelta egiteko momentua. “Hau poza!”, dio neskak bere buruari. Etxera iritsi bezain pronto, gurasoei azterketa primeran atera dela kontatzeko irrikitan egon, eta bertaratzean, halako marrazki artistiko bat bere etxe atariko horman egin dutela ikusi. Mira puntu baten erdian, bere gurasoen autoaren matrikula. “Pozez beteriko buelta egin nuen eskolatik, eta egun hartatik, azterketa bat egiten dudan bakoitzean, nire etxean aurkitutako hura datorkit burura. Nork hartu du nire familiari horrelako mehatxuak egiteko eskubidea?”

Miércoles, día de escuela. La madre le desea suerte a su hija de 13 años. Primer examen del curso. Llega al cole, y se reencuentra con sus amigos y amigas. Es la hora del examen; los nervios van a agobiar a la joven, pero en su recuerdo cercano “ayer repasé con el aita, no hay excusas para hacerlo mal”. Las cinco de la tarde, hora de volver a casa. “¡Qué felicidad!”, se dice la joven a sí misma. En el camino de vuelta a casa tiene unas enormes ganas de contarles a sus padres lo bien que le ha salido el examen, pero al llegar se encuentra con una especie de dibujo artístico en la pared de su casa. En medio de un punto de mira han dibujado la matrícula del coche de sus padres. “Aquel camino de vuelta a casa lleno de felicidad se convirtió en una pesadilla; ahora cada vez que hago un examen es inevitable recordar aquel dibujo. ¿Quién se ha tomado la libertad de amenazar de esta manera a mi familia?”.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/5

Eskolako txirrinak jo du eta hainbeste esperotako oporretan nago jada. Etxera heldu motxila utzi eta ama gogor besarkatzen dut. Irribarretsu begiarekin keinu egin eta noten gutun-azala emanda korrika igo ditut eskailerak bainujantzia janzteko asmoz. Bazkariaren usain goxoak erakarrita laster noa mahai ingurura. Ama pozik dago ikasgai guztiak gainditu ditudalako. Azkar jan eta arrapaladaka lagunengana noa oporretako lehen eguna topera gozatzeko prest. Bizikleta hartuta pedalkada bakoitza baikortasunez emanik laster hondartzara iristeko. Lagun guztiak elkarrekin gaude eta irribarreak nabari dira gure artean. Bat-batean zapuztezina zirudien momentua eztanda batekin amaitzen da. Lasaitasunezko paisaia, istilu sakoneko giro jasangaitz batean bilakatzen delarik. Perspektiba osoak kaosa beste ezer irudikatu ezin duelarik. Sirena hotsak nabarmentzen dira ikusteko zailtasunak eragiten dizkigun kearen gainetik. Horrelakoetan bizirik egotea ez da gutxi.

Ha sonado la sirena del colegio y empiezo a disfrutar de mis tan ansiadas vacaciones. Llego a casa, dejo la mochila a un lado y abrazo fuertemente a mi madre. Le guiño el ojo sin dejar de sonreír, le entrego el sobre con las notas y subo las escaleras para ponerme el bañador. El agradable aroma de la comida hace que me siente rápidamente a la mesa. Mi madre está contenta al ver que he aprobado todo. Termino rápido de comer y voy donde mis amigos con la intención de disfrutar al máximo de mi primer día de vacaciones. Cojo la bicicleta y pedaleo con optimismo para llegar cuanto antes a la playa. Estamos todos los amigos juntos y una gran sonrisa se vislumbra en nuestras caras. De repente, lo que parecía una situación inmejorable, se acaba con una explosión. El paisaje de tranquilidad se transforma en una situación confusa e inaguantable. Todo lo que puedo ver a mi alrededor es caos. Los ruidos de sirenas reinan por encima del humo que nos impide ver. En estas ocasiones, estar vivo no es poco.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/6

Herrian sarekada izan da eta askok alde egin dute, nire semea barne. Orain arte ez nekien zergatik hainbesterako presa, baina begiak ireki ditut. Frantzian omen da nire semea, etxean utzi nau inongo azalpenik eman gabe. Eta orain nire esku dago bere istorioa jakitea edo ez. Badirudi, bolada luze bat badela, ETA politiko-militarrean zebilela. Zein motatako ama naiz orduan, hortaz ez banaiz ohartu? Frantzian egonik bere borroka armatuarekin jarraitu du poliziak harrapatu duen arte, eta orain kartzelan dago. Bospasei urte badira ez dudala bere berririk eta ez daukat argi norekin haserretu behar naizen, ez daukat oso argi ere nire semea kartzelan egoteagatik negar egitea merezi ote duen, edo hobeto esanda, ez dakit berak merezi duen nik beregatik malkorik botatzea. Nire seme kuttuna zen hori kartzelan zegoen bitartean joan naiz bizitza honetatik. Hala ere, aspaldi hil nintzela uste izan dut beti, berak giza eskubideak urratzen hasi zen momentu hartan, alegia. Berak jakin gabe, baina, berak eginikoek bazuten eragina nire bizitzan, eta horiek guztiak, nirekin eraman ditut.

Ha habido una redada en el pueblo y muchos han huido, incluido mi hijo. Hasta ahora no entendía por qué tanta prisa, pero he abierto los ojos. Parece que está en Francia, me ha dejado en casa sin ningún tipo de explicación. Y ahora está en mis manos querer conocer su historia o no. Por lo visto, llevaba tiempo militando en ETA político-militar. ¿Qué tipo de madre soy entonces para no darme cuenta de eso? En Francia ha continuado con la lucha armada hasta que lo han detenido y ahora está en la cárcel. Ya son cerca de 6 años desde la última vez que supe de él y no tengo claro con quién tengo que enfadarme, no tengo muy claro tampoco si merece la pena llorar por el hecho de que mi hijo esté en la cárcel, o mejor dicho, no sé si se merece que derrame una sola lágrima por él. Mientras que mi querido hijo estaba en la cárcel he abandonado esta vida. Pero creó que mi muerte fue antes de todo esto, creo que morí en el momento en el que él comenzó a vulnerar los derechos humanos. Sin él saberlo, sus hechos tenían repercusión en mí, y me los he llevado conmigo.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/7

Larunbata, larunbat eguzkitsua. Ume koxkorrekin eguna naturarekin kontaktuan pasatzera joateko primerako giroa. Tuper ontzietan bazkaria prestatu eta picnic bat egiteko prest, abiatzear dago familia. Irten baino lehen, umeei herriko plazako tabernan gosaltzera joatea erabaki dutela esan, eta hauek belarri batetik bestera doan irribarrea marraztu dute beraien aurpegietan. Plazara iritsi eta errespetuarekin elkarbizitzen ez dakiten jendearen txutxumutxuak entzuten hasi dira gurasoak. Azkenean, buelta eman, autora joan eta bidean izango dela gosaria erabaki. Nork kendu die irribarrea ume horiei oraingoan? Ez hori bakarrik. Aita kotxera sartzear dagoela 5 urteko neska korrika "aita itxaron, ez sartu" oihukatuz. Umea auto ondora iritsi eta honen azpian zer dagoen ikusteko makurtu ondoren zera dio aitari: "orain bai aita, sar gaitezke, ez digute lehengo astean ertzain hari jarritako jostailua ipini".

Sábado; un sábado soleado. Un día espléndido para ir a pasar el día con los más pequeños de la casa y estar en contacto con la naturaleza. La familia ya ha preparado los tupers con la comida y está dispuesta a salir de casa para ir de picnic. Antes de salir les dicen a los niños que desayunarán en el bar de la plaza del pueblo, y en sus caras se dibuja entonces una sonrisa de oreja a oreja. Al llegar a la plaza, los padres sienten la presión de las miradas y los comentarios de aquellos que no saben convivir con respeto. Ante esto, los padres se dirigen al coche y deciden que será mejor desayunar por el camino. ¿Quién les ha quitado esta vez la sonrisa a estos niños? Y eso no es todo. Cuando el padre está a punto de entrar en el coche, la hija de 5 años corre hacia él y grita: "Aita, espera, no te montes". La niña se acerca al coche y se agacha para mirar debajo. Entonces, le dice: "Ahora sí aita, podemos montarnos; no nos han puesto el juguete que le pusieron la semana pasada a aquel ertzaina".

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/8

Atxilotutako guztiak, ¿errugabeak ote ginen? Errua izan ala ez, bazirudien honek bost axola zuela. Inoiz inork merezi ez duen tratua: helburu bat lortzeko egindako ibilbideak ez baititu justifikatzen onartuta ez dauden ekintzarik. Ostegun arratsaldean herrian politikaz hitz egiteko biltzen ginen gazte guztiok torturak jasan genituen. Nire kasuan, bost egunetatik hirutan torturak jasan nituen. 30 zentimetrotara zegoen pareta batera begira eduki ninduten. Ez zidaten ezta lorik egiten utzi, eta lau orduro, kamantza batean 20 minutuz etzanda uzten ninduten. Gehiago ahal ezin arte, ariketa fisikoa egiten eduki ninduten, bai biluzik, bai jantzirik, indargabetzearen ondorioz lurrera jausten nintzen arte. Buruan bi aldiz jarri zidaten plastikozko poltsa bat, ni itotzeko zindoazelako planta eginez. Hau inori desio ez diodan esperientzia beldurgarria da; gorputzean eta ariman daramat horren seinale.

¿Éramos culpables todas las personas a las que nos detuvieron? Culpables o no, parecía que esto no importara mucho. Un trato que nadie merece jamás: el fin no justifica los medios. Todas las personas jóvenes que nos reuníamos los jueves en el pueblo para hablar de política sufrimos torturas. En mi caso, las sufrí tres de los cinco días que estuve detenido. Me tuvieron mirando a una pared que estaba a 30 centímetros de mí. No me dejaron ni dormir, y cada cuatro horas me tumbaban durante 20 minutos en un camastro. Me tuvieron haciendo ejercicio tanto desnudo como vestido hasta caer rendido en el suelo. Dos veces me cubrieron la cabeza con una bolsa de plástico, para hacerme creer que iban a ahogarme. Esta es una experiencia terrorífica que no deseo a nadie: yo aún llevo su marca en el cuerpo y en el alma.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/09

Arratsaldeko zazpi eta erdiak. Egun luzea izan ondoren bulegotik atera naiz. Ekialde Hurbilarekin hodien esportaziorako kontratuaren negoziaketa zaila izan da, baina badirudi hemendik aurrera enpresa honek pausu handiak emango dituela aurrera. Gaur ez dut etxera berandu heldu nahi. Asteburu honetan gure semeak judoko gerriko horia lortu zuen eta ziurtagiria etxera gaur iritsiko zela esan ziguten... Ospatuko dugu. Hanburgesak afalduko ditugu, berari asko gustatzen baitzazkio. Eta oraingoan ez diot errieta egingo aurpegia eta arropa maionesarekin zikintzeagatik. Berriz ere nire emaztea postontzia husteaz ahaztu egin da: supermerkatuko publizitatea, gasaren faktura eta...

“Epe hori igaro eta gero eskatutako dirua gure esku ez badago ETAk erabakiko du nola eragin zure hondasunen edo are zure aurka ere. Gauza bera gertauko da edozein polizia zerbitzuri gure harreman hauen berri emango bazenio. Zure berri azkaren zain”.

Las siete y media de la tarde. Por fin salgo de la oficina después de un largo día. La negociación del contrato de exportación de tuberías a Oriente Próximo ha sido dura, pero parece que a partir de ahora esta empresa va a coger carrerilla. Hoy no quiero llegar tarde a casa por nada del mundo. Este fin de semana nuestro hijo se examinó de cinturón amarillo de judo y dijeron que hoy llegaría el certificado a casa… Lo celebraremos. Cenaremos hamburguesas, como a él le gusta. Y esta vez, no le echaré la bronca por pringarse la cara y la ropa con mahonesa. Otra vez mi mujer se ha olvidado de vaciar el buzón: propaganda del súper, la factura del gas y…

“Como desconocemos su grado de dominio del euskara y previendo problemas de discreción a la hora de conseguir que le traduzcan la presente le informamos de que pasados años desde que recibió la petición de aportación económica por parte de ETA, y sin que haya realizado la mínima gestión para satisfacer dicha deuda, le hacemos llegar este último aviso para que abone la cantidad en el plazo máximo de un mes. De no ser así se convertirá automáticamente (usted y sus bienes) en objetivo potencial de ETA. Lo mismo sucederá si acude a cualquier cuerpo policial”.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua — Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/10

Karreran nenbilenean behin eta berriz errepikatu zidaten ez nuela lanik topatuko, kazetari guztiak unibertsitatetik langabezira zihoaztela zuzenean. Zorionez, hau ez zen nire kasua izan. Lizentziatu bezain berri, eta zorte pixka bat eta kontaktu batzuk erabilita, egia esan, praktikak egin nituen leku berean hasi nintzen lanean. Bost hilabete eta piko pasa dira egun hartatik. Gaur, beti bezela lanerako bidean nago, baina zerbait arraroa sumatu dut azken izkina biratu aurretik. Ohitura izaten da zerbaiten berri ematean bertara iristerako emergentzia argiak egotea. Baina gaur ez du telefonoak jo, bulego eguna da. Edo izan beharko litzake. Bertan daude: ertzainak, anbulantziak, suhiltzaileak, eta atzean, sua. Gaur ez da bulego eguna, lantokitik mugitu beharrik ez, baina gertaeraren berri eman beharra izango dut. Gaur, nire lantokia berria da.

Mientras estudiaba la carrera una y otra vez me repetían que no encontraría trabajo, que todos los periodistas iban directos de la universidad al paro. Por suerte, este no ha sido mi caso. Recién licenciada, con un poco de suerte y utilizando algún que otro contacto, la verdad, empecé a trabajar en el mismo sitio donde hice las prácticas. Han pasado algo más de cinco meses desde ese día. Hoy, como siempre, voy camino del trabajo, pero he notado algo raro antes de doblar la última esquina. Cuando informó de algún suceso estoy acostumbrada a que las luces de emergencia ya estén allí. Pero hoy no ha sonado mi teléfono y es día de oficina. O debería serlo. Allí están: ertzainas, ambulancias, bomberos y, detrás, el fuego. Hoy no es día de oficina, hoy no tengo que moverme, pero tendré que informar sobre lo sucedido. Hoy mi lugar de trabajo es la noticia.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/11

Asteazkena, atzo gertatu zen banku langilearen bahiketa besterik ez da entzuten hedabideetan eta lantegian. Nik, ordea, beste gauza bat dut buruan, gaur bilera oso garrantzitsu bat dugu laborategian. Gure proiektua aurkeztu behar diogu epaimahaiari. Arratsaldeko seiak, eguna izugarria izan da, laborategiak behar adina finantziazioa lortu du proiektu guztiak aurrera eramateko. Orain bai, orain buruan beste ardurarik ez dudala, duela 25 urte hainbeste maite dudan emakumearekin ezkondu izana ospatu dezaket. Kotxera sartzear nagoela atzetik hartu naute, begiak itxi, beraien kotxean sartu eta kokatzen ez dakidan leku ilun batera eraman naute. Autoan begiak itxita nituela galdera zaparrada egin diot nire buruari: Nor naiz bada ni? Zer nahiko dute niregandik? Nora naramate? Milaka galdera, eta denak, erantzunik gabekoak. Ustez, dirua besterik ez zuten nahi baina egutegiak aurrera egiten du. 26. eguna, sagarrak. 27. eguna, sagarrak. 28. eguna… Lau aste pasa dira dagoeneko? Zulo honetan erotzen hasia naiz. Orain egun batzuk, diru kontua besterik ez zela aitortu zidaten eta nire familiak ordaindu besterik ez zuela egin behar, ordaindu besterik ez. Bahitu ninduten arropa berdina daramat gainean. 45. eguna, 46. eguna, 47. eguna… “Zure familiak ordaindu du, gaur askatuko zaitugu”. Gaur kontatu dezakedan bizipena da hau, baina, lapurtu zizkidaten 47 egun haiengatik, urteko asteazken horretan ospatu beharrekoa ospatu beharrean “ufa, beste urte batez libratu naiz zulo hartatik” esanez, esnatzen naiz.

Miércoles, en los medios de comunicación y en la oficina solo se habla del secuestro de ayer del empleado de un banco. Yo, sin embargo, tengo otra cosa en la cabeza: hoy tengo una reunión muy importante en el laboratorio. Tenemos que presentar nuestro programa al tribunal. Las seis de la tarde: ha sido un día increíble, el laboratorio ha conseguido toda la financiación que le hacía falta para sacar todos los proyectos adelante. Ahora sí, ahora que no tengo más obligaciones a las espaldas puedo celebrar que hace 25 años me casé con la mujer que tanto amo. Cuando iba a entrar al coche me han cogido por detrás, me han tapado los ojos, me han metido en su coche y me han llevado a un lugar oscuro que no sabría situar. En el coche, con los ojos cerrados, una tormenta de preguntas inundan mi cabeza: ¿Quién soy yo? ¿Qué querrán de mí? ¿A dónde me llevan? Mil preguntas y todas ellas sin respuesta. Al parecer solo querían dinero, pero los días van pasando. Día 26, manzanas. Día 27, manzanas. Día 28... ¿Ya han pasado cuatro semanas? Estoy empezando a volverme loco. Hace unos días me reconocieron que era solo cuestión de dinero y que mi familia solo tenía que pagarlo. Llevo la misma ropa que cuando me secuestraron. Día 45, día 46, día 47... “Tu familia ha pagado, hoy te soltaremos”. Esta es una experiencia que puedo contar hoy, pero, después de los 47 días que me robaron, cada vez que llega ese miércoles del año, en vez de celebrar lo que debería celebrar me despierto diciéndome: “¡Uf! Me he librado de ese zulo otro año más”.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

# MEMORIAREN EGUNA - GAZTEON 12 ISTORIO 12/12

Astelehenetan autobusez, asteartetan nire autoan. Asteazkenean nire koinatua bere autoan dator eta jaso egiten nau. Osteguna, gaur ordu erdi lehenago atera eta oinez joango naiz. Ostiralean, nire autoan ere, baina autobusaren ibilbidea jarraitu gabe. Hurrengo astean ordena aldatuko dugu, nire bizkartzainarekin adostu eta gero. Herrizaingo Sailak egokitu zidanetik apur bat lasaiago nabil... Kostata ohitu egin nintzen asteburuetan ere nirekin egon behar zuela onartzera: Nola egon behar nuen ni tabernan, kuadrilarekin eta bera atean, euria ari zuen bitartean, bakarrik, beldurtuta, beharbada, ni bezain beste? Nork babesten du bere burua? Baina ez du axola berak edo nik, edo beste hainbestek! sentitutakoa: ETAkoek ez dituzte asteburuak bereizten, tabernak edo kuadrilak... ezta bizitzaren errespetua ere.

Los lunes en autobús, los martes en mi coche. Los miércoles viene mi cuñado en el suyo y me recoge. Jueves, hoy saldré media hora antes e iré andando. El viernes en mi coche también, pero sin seguir el trayecto del autobús. La semana que viene cambiaremos el orden después de acordarlo con mi escolta. Desde que me lo asignó el Departamento de Interior me muevo “algo” más tranquilo… A lo que no terminaba de acostumbrarme era a su compañía durante los fines de semana: ¿Cómo iba a estar en el bar, con la cuadrilla, y él en la puerta lloviendo, solo, asustado, tal vez, tanto como yo? ¿Quién le protege a él? Pero no importa lo que él o yo, ¡y tantos otros!, sintamos: los de ETA no entienden de fines de semana, bares, cuadrillas…, ni del respeto a la vida.

*EGK-ko bake lan taldea sortutako ekimena da hau. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina: PARTEKA ITZAZU ISTORIO HAUEK!*
*Esta es una iniciativa creada por el grupo de paz de EGK. Queremos que el 10 de noviembre, Día de la Memoria, pertenezca a las/os jóvenes. Porque nuestra memoria completa la memoria de la sociedad, haz tú también el pasado presente: ¡COMPARTE ESTAS HISTORIAS!*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi